



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko urriaren 19a

116. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, N-121-A errepideko obrarako (5+550 kilometro puntuaren eta 10+500 kilometro puntuaren artean) urriaren bigarren hamabostaldiari begira departamentuak darabiltzan aurreikuspenei buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (3. or.).
- Galdera, Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismitik heldu diren funtsen bidez finantzatutako proiektuen kudeaketarako eta jarraipenerako araudiari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (3. or.).
- Galdera, alokairuaren arloko neurriak jasoko dituen foru lege proiektu bat taxutzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, Peol-522 Ac proiektuari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Tuterako eta Lizarrako ospitaleetan 2022an egin beharreko inbertsioei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, 2020ko martxoko itxarote-zerrendei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (6. or.).
- Galdera, energia berriztagarrietako proiektuak onesteko prozedurari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroak fiskalitatearen aldetik duen erakarmenari buruzkoa. María Jesús Valdemoros Erro andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroako A-15 autobideari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Foruzaingorako nahiz Suhiltzaile eta Babes Zibilerako psikologo bat arduraldi eskusiboan kontratatzeari buruzkoa. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformarako 4/2019 Foru Legearen garapenari buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (9. or.).
- Galdera, eskolatzearen bidez euskararen gutxieneko ezagutza unibertsalizatzeari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, indarkeria bikarioari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Nafarroako hezkuntza-sistemako inklusio-politikei buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak egin du (10. or.).

- Galdera, KC Compact funtsak Aguas de Navarra SA erosi izanari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (11. or.).
- Galdera, osasunaren eta hezkuntzaren arloetan egonkortze-prozesuak bideratzeko enplegu-eskaintzei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (11. or.).
- Galdera, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Lege proiektuan jasotako Nafarroako ekarpenari buruzkoa. Uxue Barcos Berruezo andreak egin du (12. or.).
- Galdera, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Lege proiektuari buruzkoa Nafarroari dagokionez. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako kirol federazioendako 2020-2021 aldirako dirulaguntzen deialdiari buruzkoa. Kultura eta Kirol Batzordean izapidetzea (14. or.).
- Galdera, LC Districts proiektuari buruzkoa. Osoko Bilkuran izapidetzea (14. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuak Gizain-Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako izen-datu beharreko patronatukide bat hautatzea. Hautagaiak aldarrikatzea (15. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, N-121-A errepideko obrarako (5+550 kilometro puntuaren eta 10+500 kilometro puntuaren artean) urriaren bigarren hamabostaldia-ri begira departamentuak darabiltzan aurreikuspenei buruzkoa.*ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztutako galdera, N-121-A errepideko obrarako (5+550 kilometro puntuaren eta 10+500 kilometro puntuaren artean) urriaren bigarren hamabostaldia-ri begira departamentuak darabiltzan aurreikuspenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak batzordean ahoz erantzun dezan:

Departamentuak bide eta ordu alternatiborik planifikatu al du 5+550 kilometro puntuaren eta 10+500 kilometro puntuaren arteko obra ("erroda-dura-geruzarako nahastura bituminoso beroa ematea"), zeina 16 egunez luzatzea aurreikusten baita, egiteko? Zergatik?

Nafarroan, 2021eko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Galdera, Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismitik heldu diren funtsen bidez finantzaturako proiektuen kudeaketarako eta jarraipenerako araudiari buruzkoa.*AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak aurkeztutako galdera, Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismitik heldu diren fun-

tsen bidez finantzaturako proiektuen kudeaketarako eta jarraipenerako araudiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2021eko urriaren 13ko gobernu-bilkuran, Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismitik heldu diren funtsen bidez finantzaturako proiektuen kudeaketarako eta jarraipenerako lehen araudia onetsi zuen Nafarroako Gobernuak.

Zertan datza eta zer helburu dauka Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismitik heldu diren funtsen bidez finantzaturako proiektuen kudeaketarako eta jarraipenerako araudi onetsi berri horrek?

Iruñean, 2021eko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

Galdera, alokairuaren arloko neurriak jasoko dituen foru lege proiektu bat taxutzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, alokairuaren arloko neurriak jasoko dituen foru lege proiektu bat taxutzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, urriaren 21eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Urriaren 13an, prentsak egindako elkarrizketa batean, bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak lege proiektu bat iragarri zuen, besteak beste jasoko duena alokairuaren iraunkortasun-indizea ezartzea.

Horri buruz, parlamentari honek ondoko galdera egin du:

• Zertan da lege proiektu hori eta zeintzuk dira alokairuaren arloan ezarriko diren neurri nagusiak?

Iruñean, 2021eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Peol-522 Ac proiektuari buruzkoa.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak Peol-522 Ac proiektuari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko

kontseilari Itziar Gómezek Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Parlamentari naizen aldetik, honako hau jakin nahi dut Peol-522 Ac proiektuaren albisteari buruz –proiektuak honako parke eoliko hauek hartzen ditu: Luna (49,5 MW), Kaede (40,6 MW), Kodama (49,5 MW), Makami (49,5 MW), Kaminari (49,5 MW), Kairi (49,5 MW), Amikiri (16,5 MW), Delfina (49,5 MW), Fukei (49,5 MW), Cadmo (49,5 MW), Belerofonte (49,5 MW) eta Kyoko (49,5 MW) Zaragozako probintzian, eta ebakuazio-azpiegiturak Aragoi (Zaragoza), Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan (Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia)–:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zer iritzi dio gure erkidego osoa ukitzen duen proiektu horri? Egin al duzue, edo egitea aurreikusten al duzue, horri buruzko txostenik? Txostena aldekoa ala kontrakoa izanen al da?

Iruñean, 2021eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

Galdera, Tuterako eta Lizarrako ospitaleetan 2022an egin beharreko inbertsioei buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako eta Lizarrako ospitaleetan 2022an egin beharreko inbertsioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak urriaren 8an iragarri zuen heldu diren bi urteotan 32,7 milioi euroko inbertsioa egingen duela. Emandako informazioaren arabera, inbertsio handia izanen da teknologian (PET, onkologiarako azeleragailuak, hiru gammakamera...) eta azpiegiturretan, zenbait erai-kin eta ospitale-gune berrituta (Nafarroako Labo-

rategi Bateratua, ZIU pediatrikoa...); inbertsiorik gehienak, ordea, HUN/NOUrako izanen dira.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

- Tuterako eta Lizarrako eskualdeko ospitalee-

tan 2022an zer inbertsio egitea aurreikusten da teknologian eta azpiegituretan?

Iruñean, 2021eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, 2020ko martxoko itxarote-zerrendei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak 2020ko martxoko itxarote-zerrendei buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri dago zehatz-mehatz 2020ko martxoan itxarote-zerrendetan izandako inpaktuaren atzean?

Iruñean, 2021eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, energia berriztagarrietako proiektuak onesteko prozedurari buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak energia berriztagarrietako proiektuak onesteko prozedurari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak ahoz erantzun dezan:

Espainiako Gobernuarekiko koordinazioa zer bide baliatuta egiten ari da, baldin eta egiten ari bada, Espainiako Gobernu lege izapidetzen ari den energia berriztagarrien proiektuak onesteko prozedurei dagokienez?

Iruñean, 2021eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, Nafarroak fiskalitatearen aldetik duen erakarmenari buruzkoa.

MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak Nafarroak fiskalitatearen aldetik duen erakarmenari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Jesús Valdemoros andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan oinarritzen duzu Nafarroa ikuspuntu fiskaletik erakargarria delako baieztapena?

Iruñean, 2021eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros

Galdera, Nafarroako A-15 autobideari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak Nafarroako A-15 autobideari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Espainiako eta Nafarroako gobernuek A-15 Nafarroako autobidearen aldeko apustua egiten al dute?

Iruñean, 2021eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Foruzaingorako nahiz Suhiltzaile eta Babes Zibilerako psikologo bat arduraldi eskusiboan kontratatzeari buruzkoa.

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztutako galdera, Foruzaingorako nahiz Suhiltzaile eta Babes Zibilerako psikologo bat arduraldi eskusiboan kontratatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du,

lehendakariorde eta Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Foruzainek, suhiltzaileek eta Babes Zibileko langileek larrialdi eta emergentzia egoerei aurre egin behar izaten diete sarri, horrek berekin dakarren estres eta higitze emozional handiarekin. Hortaz, laguntza eta babes emozional espezializatua behar dute, estresa eta hunkipen gehigarria hobeki kudeatzen lagunduko diena, halako egoeretatik heldu diren ondorio larriak ekiditeko.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dugu:

Zure departamentuak gogoan hartu al du hiru zerbitzu horietarako (Foruzaingoa, Suhiltzaileak eta Babes Zibila) psikologo bat arduraldi eskusiboan kontratatze aukera, lan-esparruari lotutako arrisku psikosozialen prebentzio-programaren baitan?

Iruñean, 2021eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Blanca Regúlez Álvarez

Galdera, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako 4/2019 Foru Legearen garapenari buruzkoa.

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako 4/2019 Foru Legearen garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Yolanda Ibáñez Pérez andreak honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Departamentuak Toki Administrazioaren Erreformatarako 4/2019 Foru Legea garatuko al du?

Iruñean, 2021eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

Galdera, eskolatzearen bidez euskararen gutxieneko ezagutza unibertsalitzeari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, eskolatzearen bidez euskararen gutxieneko ezagutza unibertsalitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako Iñaki Iriarte

López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Euskararen II. Plan Estrategikoaren zirriborroak honako hau jasotzen du 57. orrialdean: «Eskolatzearen bidez euskararen gutxieneko ezagutza (A eredu eskaintzen duena) unibertsalitzatzeko aukera aztertu, Nafarroako haur guztiek eskolatzeko prozesuan Nafarroako berezko hizkuntza den euskararekiko harremana izan dezaten».

Gobernuak nola justifikatzen du neurri hori hartzea eta noiz aurreikusten du hartuko duela erabaki bat?

Iruñean, 2021eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, indarkeria bikarioari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak indarkeria bikarioari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak 2021eko urriaren 21eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak zer neurri har dezake indarkeria bikarioari kasuetan, hildako seme-alaben abizenak urgentziaz aldatzerik ez dutenean amek?

Iruñean, 2021eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Nafarroako hezkuntza-sistemako inklusio-politikei buruzkoa.

JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak Nafarroako hezkuntza-sistemako inklusio-politikei buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak urriaren 21eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernua zer urrats egiten ari da Nafarroako hezkuntza-sisteman inklusioan aurrera egiteko?

Iruñean, 2021eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, KC Compact funtsak Aguas de Navarra SA erosi izanari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak KC Compact funtsak Aguas de Navarra SA erosi izanari buruz aurkeztutako gaurkotatutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentariaren elkartearen eledun Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotatutako galdera honako galdera hau aurkeztu du, Lurralde Kohe-siorako kontseilariak urriaren 21eko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Gobernuak zer iritzi dio KC Compact funtsak Aguas de Navarra SA erosi izanari?

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, osasunaren eta hezkuntzaren arloetan egonkortze-prozesuak bideratzeko enplegu-eskaintzei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotatutako galdera, osasunaren eta hezkuntzaren arloetan egonkortze-prozesuak bideratzeko enplegu-eskaintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotatutako galdera honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak 2021eko urriaren 21eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuen ordezkatzeko-tasa murriztaileek eta azken urteotan ia lan-eskaintza publikorik egin ez izanak eragin dute behin-behinekotasuna nabarmen areagotzea eta jasanezina izatea. Enpleguaren egonkortasun ezak eragin negatiboa du zerbitzu publikoen antolakuntzan nahiz aldi baterako langileen kasuan.

Osasunaren arloan, behin-behinekotasuna handi-handia izateaz gain, %40koa baita, arazoak daude oinarriko osasun laguntzako, laguntza espezializatuko nahiz ospitaleko zenbait espezializatetarako profesionalak lortzeko Iruñeritik kanpo.

Hezkuntzaren arloan, gauzak ez daude hobeki. Lan-eskaintza publikoak eta kasuko hautapen prozesuak gorabehera, asko falta da plantillen % 8ra iristeko.

Enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko neurri urgenteei buruzko uztailaren 6ko 14/2021 Errege Lege-dekretuak, behin-behinekotasun handi hori aintzat hartuta, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak ezartzeko aukera ematen du.

Egonkortze-prozesu horiek bideratzeko enplegu-eskaintzak 2021eko abenduaren 31 baino lehen onetsi eta argitaratu beharko dira.

Lan-eskaintza publikoetan sartutako lanpostuak betetzeko hautapen prozesuen deialdiak 2022ko abenduaren 31 baino lehen argitaratu beharko dira. Hautapen prozesu horiek 2024ko abenduaren 31 baino lehen ebatzi beharko dira.

Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen dabil enplegu publikoko behin-behinekotasuna murrizteko osasunaren eta hezkuntzaren arloetako lan-eskaintza publikoko lanpostu kopuruari dagokionez eta hautapen prozesu horien tenporalizazioari dagokionez?

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Lege proiektuan jasotako Nafarroako ekarpenari buruzkoa.

UXUE BARCOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barcos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Lege proiektuan jasotako Nafarroako ekarpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko eledun Uxue Barkos Berruezo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak heldu den urriaren 21eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Lege proiektuaren testua ezagutu dugu, eta horren arabera Nafarroako Gobernuak aurreikusitakoa baino handiagoa izanen da Nafarroak ekitaldi horretan egin beharreko ekarpena.

Gobernuko lehendakariak zer egingen du horri dagokionez?

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

Galdera, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Lege proiektuari buruzkoa Nafarroari dagokionez.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Lege proiektuari buruzkoa Nafarroari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuako lehendakariak zer balorazio egiten du 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Lege proiektuaz Nafarroari dagokionez?

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoari buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak 2021eko urriaren 18ko Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa onetsi ostean, plan horrek zertan lagundu dezake gure erkidegoko herritarrek eskatzen diguten eta behar duten bizikidetzapremiari dagokionez?

Iruñean, 2021eko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, Nafarroako kirol federazioendako 2020-2021 aldirako dirulaguntzen deialdiari buruzkoa.

KULTURA ETA KIROL BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako kirol federazioendako 2020-2021 aldirako dirulaguntzen deialdiari buruzkoa, Kultura eta Kirol Batzordean izapidetu

dadin. Galdera 2021eko urriaren 5eko 112. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/POR-00363).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, LC Districts proiektuari buruzkoa.

OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak LC Districts proiektuari buruz aurkezturiko galdera Osoko Bilkuran izapidetu dadin. Galdera 2021eko urriaren 14ko 115. Nafarroako Parla-

mentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/POR-00381).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak Gizain-Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako izendatu beharreko patronatukide bat hautatzea.

HAUTAGAIK ALDARRIKATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 13an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuak Gizain-Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako izendatu beharreko patronatukide bat hautatzeko arauekin bat, zeinak 2021eko irailaren 13an hartutako erabakiaren bidez onetsi baitziren (2021-09-16 103. NPAO) honako hau ERABAKIDA:

1. Gustavo de Guzman Muñoz Barrutia jauna, Geroa Bai talde parlamentarioak proposatutakoa, Gizain-Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako patronatukide izateko hautagai aldarrikatzea (10-21/ELC-00004).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruña, 2021eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

